# Xedapen Orokorrak

## INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

**3891**

AGINDUA, 2010eko uztailaren 28koa, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuarena; honen bitartez, Hiri Merkataritzaren Lankidetza, Dinamizazio eta Lehiakortasuneko zonako estrategiak sustatzera bideratutako laguntzen programa arautzen da.

Euskal Merkataritza 2015era Egokitzeko Planak eragindako jardun-ildo nagusien helburua zera da, jokaleku lehiakor eta profesionalagoa sustatzea, merkataritza garatzearren. Merkatua globalizazioaren bidean aurrera doa, eta tokiko merkataritzak zehatz-mehatz definitu behar ditu bere tresnak; hain zuzen ere, bezeroak fidel bihurtzea xede duten estrategiak finkatzeko eta lehiakortasunerako tresnak. Horregatik, Lurraldearen ardatz estrategikoan kokatuta, Hiri Merkataritzaren Kooperazioa, Dinamizazioa eta Lehiakortasuna izeneko lanerako programa garatu da.

Laguntza-ildo horren helburua hiri-ingurune erakargarri eta lehiakorrak sortzea da, hiri-ingurune horietan jarduten duten dendei balio erantsia emango diena. Eta, hortaz, kontsumitzaileen gustuak eta zaletasunak asebetetzea, eta, horrenbestez, kontsumitzaile horien fideltasuna hobetzea.

Helburu hori hirugarren sektoreko estrategietan gauzatu behar da, zonako lankidetza-ekintzek bultzatutako estrategietan, alegia, inguruneak eskaintzen dituen zonako eta/edo sektoreko aukerei balioa emateko; horren ondorioz, ingurune horretako marka-posizionamendua hobetuko da eta haien kudeaketa profesionalizatua bermatuko da.

Lankidetza publiko/pribatua derrigorrezkoa eta funtsezkoa da programa horren helburuak lortzeko, baita dauden baliabideen aprobetxamendu bikaina lortzeko ere.

Aurkeztutako jardun-proiektuek (globalak eta bakarrak izango dira, udalerrikoak) bi alderdien artean ezarritako helburu guztiak osatuko dituzte lankidetza-hitzarmen publiko/pribatua sinatu ostean. Hitzarmen hori, bestalde, diru-laguntzaren xede den proiektua planifikatzeko, ebaluatzeko eta haren jarraipena egiteko baliabide edo tresna gisa erabiliko da.

Horrenbestez, honako hau

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, INNOVACIÓN, COMERCIO Y TURISMO

**3891**

ORDEN de 28 de julio de 2010, del Consejero de Industria, Innovación, Comercio y Turismo, por la que se regula el programa de ayudas destinadas a incentivar las estrategias zonales de Cooperación, Dinamización y Competitividad Comercial Urbana.

Las líneas principales de actuación que se derivan del Plan de Adaptación del Comercio Vasco 2015, están orientadas a fomentar un escenario más competitivo y profesional para el desarrollo del comercio. El mercado sigue avanzando hacia la globalización y el comercio local tiene que tener cada vez más claramente definidas sus herramientas de competitividad y de afianzamiento de estrategias orientadas a la fidelización de sus clientes. Es por ello que, ubicado en el eje estratégico Territorio, se desarrolla el programa de trabajo: Cooperación, Dinamización y Competitividad Comercial Urbana.

El objetivo de esta línea de ayudas es propiciar entornos urbanos comerciales atractivos, competitivos y generadores de valor añadido para los comercios operadores en el mismo. Como consecuencia, satisfacer los gustos y preferencias de los consumidores y las consumidoras, y por ende, mejorar su fidelidad.

Este objetivo se debe materializar en estrategias de terciario, impulsadas por acciones de cooperación zonal para la puesta en valor de las oportunidades zonales y/o sectoriales que el entorno ofrece, mejorando como consecuencia el posicionamiento de marca de dicho entorno y asegurando la gestión profesionalizada de los mismos.

La colaboración público/privada se estima necesaria y clave para la consecución de los fines de este programa, así como para el aprovechamiento óptimo de los recursos existentes.

Los proyectos de actuación presentados que serán globales y únicos, de municipio, integrarán todos los objetivos establecidos entre partes, una vez firmado el convenio de colaboración público/privada que servirá de medio o herramienta para la planificación, el seguimiento y la evaluación del proyecto objeto de la subvención.

Y, en virtud de ello,

XEDATU DUT:

I. KAPITULUA
XEDAPEN OROKORRAK

***1. artikulua.***– Xedea.

1.– Agindu honen helburua zera da, hiri-merkataritzaren lankidetza eta dinamizazioko estrategiak garatzen laguntzea, beren jarduera gauzatzen duten hiri-inguruneetako merkataritza-lehiakortasuna eta marka-posizionamendua hobetzera bideratutako estrategiak, alegia.

2.– Programa horren arabera, laguntza ekonomikoak emango dira urteko jardun-proiektuak (beren estrategia-izaeragatik, hots, udalerrikoak izateagatik bakarrak eta globalak dira) ezartzen eta garatzen laguntzeko. Proiektu horiek, bestalde, alderdien artean adostutako ekintza guztiak osatuko dituzte. Adostasuna lankidetza-hitzarmen publiko/pribatu bat sinatuta gauzatuko da, udalerri bakoitzeko hitzarmen bat, eta hitzarmen hori nahitaezkoa izango da laguntza lortzeko proiektuarekin batera, eta urtero berretsiko da. Hitzarmen horrek esanbidez jasoko du diru-laguntzaren xede den proiektua planifikatzeko, ebaluatzeko eta haren jarraipena egiteko ezartzen den modua.

***2. artikulua.***– Baliabide ekonomikoak.

1.– Aurreko artikuluan zehaztutakoa bete dadin erabiliko diren baliabide ekonomikoak Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan horretarako ezarritako aurrekontu-kredituetatik etorriko dira.

Agindu honetan arautzen diren laguntzen zenbateko globala, dagokion deialdi-ebazpenean esleitzen dena, aldatu ahal izango da, eskatutako laguntzen guztizko kopurua kontuan hartuta, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren beste laguntza-programa batzuk egikaritu ondoren agortu gabe geratzen diren aurrekontu-baliabideen arabera. Merkataritza eta Turismoko sailburuordearen ebazpenaren bitartez emango da horren berri.

2.– Administrazio-ebazpen bidez ukatuko dira laguntzak, baldin eta aipatutako laguntzak esleitu behar zaizkion aurrekontuak lortu nahi den helbururako nahikoa kreditu egokirik ez badu. Horregatik, programa hau indarrean dagoen bitartean, ekitaldi ekonomikoren batean laguntzak emateko esleitutako kreditua agortzen bada, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak administrazio-ebazpena emango du zirkunstantzia horren berri emateko, aipatutako kreditua zein egunetan agortu den adierazita. Ebazpen hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

3.– Aurrekontu-krediturik ezean, aurreko ekitaldi ekonomikoan aurkeztutako inbertsio-proiektuek

DISPONGO:

CAPÍTULO I
DISPOSICIONES GENERALES

***Artículo 1.***– Objeto.

1.– La presente Orden tiene por objeto favorecer el desarrollo de estrategias de cooperación y dinamización comercial urbana, encaminadas a la mejora de la competitividad comercial y del posicionamiento de marca de los entornos urbanos donde ejercen su actividad.

2.– De acuerdo con dicho programa se concederán ayudas económicas para apoyar la implantación y desarrollo de proyectos anuales de actuación únicos y globales por su carácter estratégico, de municipio, que integrarán todas las acciones consensuadas entre partes. El consenso se materializará en la firma de un acuerdo de colaboración público/privada, único por municipio, necesario para acceder a la ayuda junto al proyecto y será ratificado anualmente. Dicho acuerdo, recogerá expresamente el modo y manera que se establece para la planificación, el seguimiento y la evaluación del proyecto objeto de la subvención.

***Artículo 2.***– Recursos económicos.

1.– Los recursos económicos destinados a la finalidad del artículo anterior procederán de los correspondientes créditos presupuestarios establecidos al efecto en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

El importe global de las ayudas reguladas en la presente Orden, consignado en la correspondiente resolución de convocatoria, podrá ser modificado teniendo en cuenta la cuantía total de las ayudas solicitadas, en función de las disponibilidades presupuestarias no agotadas que resulten de la ejecución de otros programas de ayudas del Departamento de Industria, Innovación, Comercio y Turismo. De la presente circunstancia se dará publicidad mediante resolución de la Viceconsejera de Comercio y Turismo.

2.– Mediante resolución administrativa se procederá a denegar las ayudas, en el caso en que el presupuesto al que deban imputarse las citadas ayudas carezca de crédito adecuado y suficiente para la finalidad pretendida. Por todo ello, mientras se encuentre vigente el presente programa, si en un ejercicio económico se agota el crédito consignado para la concesión de las ayudas, al objeto de dar publicidad a esta circunstancia, se emitirá resolución administrativa por el Departamento de Industria, Innovación, Comercio y Turismo, en la que se señalará la fecha en que se ha producido el agotamiento del citado crédito, publicándose la misma en el Boletín Oficial del País Vasco.

3.– Los proyectos de inversión presentados en el ejercicio económico precedente, que no hayan ob-

laguntzarik jaso ez badute, eta aurrez ikusitakoaren arabera laguntza ukatu bazaie, hurrengo ekitaldiko aurrekontu-kredituei esleitu ahal izango zaizkie, baldin eta aipatutako proiektuek agindu honetan laguntzak lortzeko ezarritako betebeharrak betetzen badituzte. Kasu horretan, beste eskaera bat aurkeztu beharko dute, baina ukatutako lehen eskaeraren eguna gordeko da lehentasunak ezartzeko.

4.– Laguntzak ordena jakin bati jarraiki emango dira, espedientea noiz osatzen den kontuan hartuta, alegia.

***3. artikulua.***– Laguntzen modalitatea.

Agindu honetan aurreikusitako laguntzak itzuli beharrik gabeko diru-laguntzen bitartez ordainduko dira.

***4. artikulua.***– Beste laguntza batzuekiko bateragarritasuna.

1.– Agindu honetan ezarritako laguntzak bateragarriak izango dira helburu berbera aintzat hartuta administrazio publikoek edo erakunde pribatuek emandako beste edozein laguntzarekin.

2.– Diru-laguntzaren zenbatekoak –beste administrazio publiko batzuen edo beste erakunde pribatu edo publiko batzuen laguntzekin edo diru-laguntzekin batera– ezin izango du gainditu aurkeztutako aurrekontuaren % 90 udalen kasuan, eta % 100 elkarteen kasuan.

Gainfinantzaketa gertatuz gero, eman beharreko diru-laguntza murriztu egingo da, diruz lagundutako proiektua gauzatzeko aurreko paragrafoan ezarritako guztizko kostuaren mugaraino.

***5. artikulua.***– Erakunde onuradunak.

1.– Agindu honetan aurreikusitako laguntza ekonomikoak dagokion udalerriko udalek eta merkatarien elkarteek eskatu ahal izango dituzte; horretarako, lankidetzako «esparru-akordio» publiko/pribatua sinatu beharko dute urtero, eta hor zehaztasunez adieraziko dira helburuak, ekintzak, aurreikusitako egutegia, helburua lortzeko bideratutako baliabide ekonomikoak, eta baliabide horien jatorria, baita baliabide horien estaldura neurtzeko erabiliko diren adierazleak ere, eta proiektuari jarraipena egiteko eta hura ebaluatzeko organo bat eratu behako dute, baldin eta ez baldin badaukate.

a) Udalak:

1) 15.000 biztanletik gorako udalerriak, Euskal Autonomia Erkidegoan daudenak. Zerrenda hori agindu honetako I. eranskinean bilduta dago.

2) Hirigune Historikoa duten 15.000 biztanle baino gutxiagoko udalerriak, baldin eta, bertan dauden saltokien kopurua kontuan harturik, merkataritza biziberritzeko aukera badute. Udal horiek agindu honen II. eranskinean adierazi dira.

tenido ayudas por falta de crédito presupuestario y que hayan sido denegados en la forma anteriormente prevista, se podrán imputar a los créditos presupuestarios del ejercicio siguiente, siempre que los citados proyectos cumplan con los requisitos establecidos en la presente Orden para la obtención de las ayudas, para lo cual deberán presentar una nueva solicitud, si bien, a los efectos de prioridad se conservará la fecha de la primera solicitud denegada.

4.– La concesión de las ayudas se irá realizando ordenadamente en función del momento en el que el expediente esté completo.

***Artículo 3***.– Modalidad de las ayudas.

Las ayudas contempladas en la presente Orden se materializarán a través de subvenciones no reintegrables.

***Artículo 4***.– Compatibilidad con otras ayudas.

1.– Las ayudas establecidas en la presente Orden serán compatibles con cualesquiera otras ayudas otorgadas por administraciones públicas o por entidades privadas en las que se contemple la misma finalidad.

2.– El importe de la subvención no podrá, en concurrencia con ayudas o subvenciones de otras administraciones públicas o entes privados o públicos, superar el 90% del presupuesto presentado, en el caso de Ayuntamientos y el 100% en el de Asociaciones.

En el supuesto de que se produjera una sobrefinanciación, se procederá a la reducción de la subvención a conceder hasta el límite del coste total de ejecución del proyecto subvencionado establecido en el párrafo anterior.

***Artículo 5***.– Entidades beneficiarias.

1.– Podrán solicitar las ayudas económicas previstas en la presente Orden los Ayuntamientos y las Asociaciones de comerciantes del municipio, quienes deberán firmar anualmente, un «acuerdo-marco» de colaboración público/privada, en el que se indicarán con detalle, los objetivos, las acciones, el calendario previsto, los recursos económicos destinados a su materialización y procedencia de los mismos, así como los indicadores a través de los que se medirá su cobertura y grado de éxito de la acción, y deberán constituir, en caso de no tenerlo, un órgano de seguimiento y evaluación del proyecto.

a) Ayuntamientos:

1) Municipios de más de 15.000 habitantes ubicados en la Comunidad Autónoma del País Vasco. Esta relación se recoge en el anexo I de la presente Orden.

2) Municipios de menos de 15.000 habitantes con Casco Histórico y que por el número de establecimientos comerciales situados en el mismo, presenten una potencialidad de revitalización comercial. Dichos ayuntamientos se relacionan en el anexo II de la presente Orden.

3) Beren eskualdeko inguruneko herri guztientzat ekonomia- eta merkataritza-arloko erreferentziagunetzat hartzen diren udalerriak. Udal horiek agindu honen III. eranskinean adierazi dira.

b) Zonako merkatarien elkarteak eta elkarte mistoak, betiere Euskal Autonomia Erkidegoko Merkatarien Elkarteen Erroldan inskribaturik badaude (ekainaren 17ko 148/1997 Dekretuak arautzen du errolda hori).

2.– Merkatarien elkarte bat baino gehiago dituzten udalerrien kasuan, udalerriko hiri-merkataritzako plataformak –edo, halakorik ez badago, udalerriko enpresa-erakunde guztiek– adostasunez erabakiko du, atxikitako dokumentuan, nork ordezkatuko dituen –udalerri bakoitzeko ordezkaritza bat–, eta elkartearen ordezkari bat izendatu beharko dute. Ordezkari horrek ahalorde askietsia izango du laguntzaren onuradun izanik dagozkion betebeharrak betetzeko. Horretaz gain, elkarte bakoitzaren proiektua gauzatzeari dagokionez, izandako parte-hartze maila eta dagokion zenbatekoa zehaztuko ditu laguntza ezartze aldera.

Udalerriko merkatarien elkarte guztien esanbidezko akordiorik ez badago, udalaren eta kide kopuruari dagokionez, enpresa-arloko ordezkaritza-maila handiena du(t)en elkarte(ar)en artean ezarritako akordioa izango da baliozkoa.

Horretarako, alderdien baterako dokumentu bat aurkeztu beharko da, eta, azkenean, alderdi horiek akordioa sinatuko dute. Akordio horretan honako hauek azalduko dira: aipatutako akordioa lortzeko egindako izapideak, akordio horretatik kanpo geratu diren erakundeak, horiek kanpoan uzteko izan diren arrazoiak eta erakunde sinatzaileen ordezkaritza-maila.

Halaber, jardunen urteko plan eragilea eta aurreikusitako finantziazio-sistema aurkeztu beharko dute.

3.– Erakunde onuradunei diru-laguntzak eta laguntzak eman eta, hala dagokionean, ordaintzeko, ezinbestekoa izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta bere erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo diru-laguntzen esparruan hasi den eta oraindik tramitazioan dagoen edozein itzulketa- edo zigor-prozedura amaitzea.

II. KAPITULUA
UDALENTZAKO LAGUNTZAK

***6. artikulua.***– Diruz lagun daitezkeen proiektuak eta gastuak.

Honako hauek dira diru-laguntza jaso dezaketen inbertsio-proiektuak:

3) Municipios considerados como centro de referencia económico-comercial para el conjunto de poblaciones de su entorno comarcal. Dichos ayuntamientos se relacionan en el anexo III de la presente Orden.

b) Asociaciones de Comerciantes y Asociaciones Mixtas de ámbito zonal, que se hallen inscritas en el Censo de Asociaciones de Comerciantes de la Comunidad Autónoma del País Vasco regulado por el Decreto 148/1997, de 17 de junio.

2.– En los casos de los municipios en los que existiese más de una asociación de comerciantes, la plataforma de comercio urbano del municipio, o si no existiese ésta, el conjunto de las organizaciones empresariales del municipio, determinarán, de forma consensuada, en documento adjunto, quién ejercerá la representatividad de ellas, que será única por municipio, designando la persona representante de la agrupación con poder bastante para cumplir las obligaciones que como beneficiaria de la ayuda le corresponden, así como el grado de participación en la ejecución en el proyecto de cada una de las asociaciones y el importe correspondiente a efectos de determinación de la ayuda.

En el caso de no existir un acuerdo expreso de todas las organizaciones de comerciantes del municipio, será válido el acuerdo establecido entre el ayuntamiento y aquella o aquellas organizaciones que dispongan de un mayor nivel de representatividad empresarial en cuanto al número de integrantes.

Para ello se deberá presentar un documento conjunto entre las partes que finalmente firmarán el acuerdo en el que se recojan los trámites realizados para conseguir el citado acuerdo, las entidades que han quedado excluidas del mismo y los motivos que han producido dicha exclusión y el nivel de representación de las entidades firmantes.

Asimismo, deberán presentar el plan operativo de actuaciones anual y el sistema de financiación previsto.

3.– La concesión y, en su caso, el pago de las subvenciones y ayudas a las entidades beneficiarias de éstas quedarán condicionados a la terminación de cualquier procedimiento de reintegro o sancionador que, habiéndose iniciado en el marco de ayudas o subvenciones de la misma naturaleza concedidas por la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus organismos autónomos, se halle todavía en tramitación.

CAPÍTULO II
AYUDAS A LOS AYUNTAMIENTOS

***Artículo 6.***– Proyectos y Gastos subvencionables.

Se consideran proyectos de inversión susceptibles de ayuda:

1.– Azterlanak.

a) Agindu honetako eranskinetan azaltzen diren udalerrietako Merkataritza Biziberritzeko Planak gauzatzeko azterlanak (halakorik ez duten udalerrietan) edo 7 urte baino gehiago dituzten azterlanak eguneratzekoak, eta plana berriz lantzea gomendatzen duen hirigintzako, merkataritzako eta gizarte- zein ekonomia-arloko baldintza eta zirkunstantziarik badago.

Diru-laguntza jasotzeko, azterlanek honako eduki hauek bildu beharko dituzte gutxienez:

1) Udalerriko identifikazio-parametroen azterketa.

2) Zonako merkataritza-azterketa.

3) Zonako espazio-azterketa.

4) Udal-hornidurako sistemen azterketa, salgaien zamalanei buruzko ordenantzen gaineko alderdiak barne.

5) Eskaeraren azterketa.

6) Diagnostikoa.

7) Jardun-proposamenak, honako hauek zehaztuta: helburuak, ekintzak eta jardun horiek gauzatzea ahalbidetuko duten adierazleak.

b) Merkataritza biziberritzeari buruzko azterlanen osagarri diren azterlanak, honako honetara bideratuak: lehenengo azterlanetan bildu ez diren, baina agindu honetan ezarritako helburuak betetzeko egiaztatutako garrantzia duten alderdiak aztertzera, edo merkataritza biziberritzeko adierazitako azterlanetan bildutako proposamenak garatzera.

c) Txikizkako udal-merkatuak erabat aldatzera, berregituratzera eta modernizatzera bideratutako azterlanak.

Diru-laguntza hauek jasotzeko, azterlanek honako eduki hauek bildu beharko dituzte gutxienez:

1) Azterlanaren helburuak.

2) Udalaren deskribapen-azterketa.

3) Zonako merkataritza-azterketa.

4) Xede den merkatuaren egungo egoeraren azterketa, espazio-, arkitektura eta merkataritza-arloko alderdiei buruzkoa, baita postuen irisgarritasunari, dekorazioari eta kokapenari buruzkoa ere.

5) Egungo kudeaketa-eredua eta baliabideak.

6) Eskaeraren azterketa.

7) Diagnostikoa.

8) Jarduteko proposamenak:

– Globalak, merkaturako orokorrean.

– Merkatuaren merkataritza-eskaintza globala (establezimendu tipologia eta barietatea).

– Espezifikoak, salmenta-postu bakoitzerako.

1.– Estudios.

a) Estudios para la elaboración de Planes de Revitalización Comercial en municipios contemplados en los anexos de la presente Orden que no dispusieran de él, o para la actualización de aquellos estudios que, además de tener una antigüedad superior a 7 años, se den las condiciones y circunstancias de índole urbanística, comercial y socioeconómica que aconsejen su reelaboración.

Para ser subvencionables, deberán contemplar, como mínimo, los siguientes contenidos:

1) Análisis de los parámetros identificativos del municipio.

2) Análisis comercial de la zona.

3) Análisis espacial de la zona.

4) Análisis de los sistemas de aprovisionamiento municipal, incluidos los aspectos relativos a las ordenanzas de carga y descarga de mercancías.

5) Análisis de la demanda.

6) Diagnóstico.

7) Propuestas de actuación concretando objetivos, acciones e indicadores que posibiliten su ejecución.

b) Estudios complementarios a los de revitalización comercial, destinados, bien a analizar aspectos no incluidos en los primeros, pero con relevancia demostrada para el cumplimiento de los objetivos establecidos en la presente Orden; o bien al desarrollo de propuestas recogidas en los citados estudios de revitalización comercial.

c) Estudios destinados a la transformación, reestructuración y modernización integral de mercados municipales minoristas.

Estos estudios, para ser subvencionables, deberán contemplar como mínimo los siguientes contenidos:

1) Objetivos del estudio.

2) Análisis descriptivo del municipio.

3) Análisis comercial de la zona.

4) Análisis de situación actual del mercado objetivo en los aspectos espacial, arquitectónico y comercial, incluso accesibilidad, decoración y ubicación de los puestos.

5) Modelo de gestión actual y recursos.

6) Análisis de la demanda.

7) Diagnóstico.

8) Propuestas de actuación:

– Globales, para el mercado en su conjunto.

– Oferta comercial global del mercado (variedad y tipología de establecimientos).

– Específicas, para cada puesto de venta.

– Erabiltzaileentzako zerbitzuak jartzea (etxez etxeko banaketa, ordutegiak, txartelak, aparkalekuak, informazio-guneak, eta abar).

– Produktu-gama berriak sartzea (bidezko merkataritzakoak, ekologikoak, tokikoak, eskuz egindakoak, jatorri-izen babestua dutenak, adierazpen geografiko babestua dutenak eta abar).

– Gaikako bilketa-sistemak eta hondakinen tratamendua.

– Barne-araudia.

9) Proiektuaren bideragarritasuna, epe labur, ertain eta luzerako.

10) Gauzatzeko egutegirik hoberena.

11) Kostuen kalkulua.

12) Ondorioak.

2.– Hirigintza-jardunak merkataritza-eremuetan: 5. artikuluan adierazitako esparru-akordioan bildutako hirigintza-azpiegiturak egokitzeko proiektuetarako Agindu honen 5. artikuluko 1.a) idatz-zatian aipatzen diren Udalek egindako inbertsioak, honako helburu hauek dituztenak: udalerriko merkataritza-jarduerak aurrera egitea eta merkataritza gauzatzen den ingurunea hobetzea.

Agindu honi dagokionez, lagungarritzat hartuko dira udalerriko hirigintza-azpiegituren merkataritza-egokitzapenerako egin beharreko inbertsioak, hiri-ekipamendua eta argiteria barne, baldin eta honako hauetara bideratuta badaude:

a) Merkataritzako ardatzak edo kaleak oinezkoentzako bihurtzera, baita horiek garatzera edo birmoldatzera ere, betiere azken 7 urteetan ez badute laguntzarik jaso Sail honetako Merkataritza Biziberritzeko Planen bitartez.

b) Espaloiak zabaltzera, gutxieneko 3 metroko zabalera izan arte, lonjen % 70 gutxienez merkataritzakoak eta jardunekoak direnak dauden kaleetan. Baldintza hori dagokion udal-ziurtagiriaren bitartez egiaztatuko da.

c) Bideak kale partekatu bihurtzera.

Agindu honi dagokionez, honako hauek hartuko dira kale partekatutzat: ibilgailuak eta oinezkoak aldi berean ibil daitezkeen eremuak, betiere oinezkoek ibilgailuen trafikoarekiko lehentasuna izanik. Esate baterako, honako ezaugarri hauek izan ditzakete: plano bakarreko zoladura, trafikorako eremuetakoa eta paseatzeko eremuetakoa bereizita; trafikoa antolatua eta abiadura mugatua, 20 km/h ingurura; kaleak ornamentazio-elementuak izan ohi ditu –hala nola zuhaitzak, lore-askak, oztopo-harriak, zutoinak, etab.–, trafikoa gutxitzeko eta oinezkoen lehentasungiroa indartzeko.

– Implantación de servicios al usuario (reparto a domicilio, horarios, tarjetas, aparcamientos, puntos de información,…).

– Introducción de nuevas gamas de productos (de comercio justo, ecológicos, locales, artesanales, con denominación de origen protegida, con indicación geográfica protegida,…)

– Sistemas de recogida selectiva y tratamiento de residuos.

– Reglamento interno.

9) Viabilidad del proyecto a corto, medio y largo plazo.

10) Calendario óptimo de ejecución.

11) Estimación de costes.

12) Conclusiones.

2.– Actuaciones urbanísticas en áreas comerciales. Son aquellas actuaciones consistentes en inversiones en proyectos de adecuación de infraestructuras urbanísticas recogidos en el acuerdo-marco, mencionado en el artículo 5 y realizados por los Ayuntamientos a que se refiere el apartado 1.a) del artículo 5 de la presente Orden que tengan por objeto tanto el progreso de la actividad comercial del municipio, como la mejora del entorno donde se desarrolla el comercio.

A efectos de la presente Orden, se considerarán susceptibles de ayudas aquellas inversiones necesarias para la adecuación comercial de las infraestructuras urbanísticas del municipio, incluyendo además el equipamiento urbano y la iluminación, siempre y cuando las actuaciones vayan dirigidas a:

a) Peatonalización de ejes o calles comerciales, incluso su desarrollo o remodelación siempre y cuando no hayan sido objeto de ayuda a través de los Planes de Revitalización Comercial de este Departamento en los 7 últimos años.

b) Ensanchamiento de aceras, hasta alcanzar un mínimo de 3 metros, en aquellas calles en las que al menos un 70% de las lonjas sean comerciales y se encuentren en activo. Esta condición será acreditada mediante el pertinente certificado municipal.

c) Transformación de viales en calles de coexistencia.

A los efectos de esta Orden, se considerarán como calle de coexistencia aquellos espacios de tránsito simultáneo de vehículos y peatones, en los que los peatones tengan prioridad sobre el tráfico rodado, pudiendo ser alguna de sus características, a modo de ejemplo: pavimentado de plano único diferenciando los firmes entre las zonas de rodadura y las de paseo, el tráfico organizado y su velocidad limitada, en torno a los 20 km/h, la calle dotada de elementos ornamentales que disuadan el tráfico y refuercen el ambiente de prioridad peatonal, tales como árboles, jardineras, pilones, bolardos, etc.

d) Hiri-ingurunean kalez kaleko eta aldizkako merkataritza gauzatzeko berariazko guneak egokitzera.

Agindu honi dagokionez, jardun jakin batzuk hartuko dira kalez kaleko merkataritza-eremuen garapentzat, hain zuzen ere adierazitako merkataritza-jarduera eguneratzen eta duintzen dutenak eta hiri-ekonomiak animatzeko modu gisa merkataritza horri balioa ematen diotenak, honako hauek, esate baterako:

1) Salmenta mota horri lotutako jarduerak egiteko eremuak egokitzea.

2) Merkataritza-jarduera horretarako ekipamendu eta azpiegitura iragankorrak: karpak, egitura desmuntagarriak edo antzekoak.

3) Laguntza-zerbitzuak hornitzea, hala nola: argindarra, ura, ekipamendu elektronikoa eta abar.

e) Merkataritza-seinaleak.

f) Merkataritza-ardatzen hiri-paisaia eta paisaia estetikoa hobetzeko helburua duten eta jarduerarik gabeko lokalei lotuta dauden paramentu bertikalak edo antzekoak, iragankorrak.

g) Inbertsioak eremu horretako merkataritza-jardueraren sustapena eragiten duten merkataritza-dentsitate txikiko ardatzetan.

Agindu honi dagokionez, honako hauek hartuko dira merkataritza-dentsitate txikiko ardatz gisa: udalerriaren Merkataritza Biziberritzeko planean bilduta dauden merkataritza-kaleak, betiere eskabidea egiten denean kale horietan gutxienez lokalen % 25ek ez badu jarduera ekonomikoaren garapenik. Baldintza hori dagokion udal-ziurtagiriaren bitartez egiaztatuko da.

Aipatutako merkataritza-inbertsio horiek lokalak alokatuz eta birgaituz egingo dira, merkataritza-jardueraren esku uzteko, betiere lokal horiek agindu honetako I. eranskinean bildutako udalerrietako Hirigune Historikoetan, edo hiri-birmoldaketako plan berezietan bilduta dauden eremu zaharkitu edo degradatuetan kokatuta badaude.

Nolanahi ere, lokal horiek merkataritza-sektorearen eskura jarri beharko dira, merkatuan dauden baldintzekin alderatuta, abantailazko baldintzetan. Merkataritza-jarduera ekintzaile berri batek (merkataritza-alorrean esperientziarik gabea) gauzatu behar badu, erakunde eskatzaileak proiektuaren gaineko hiru urteko babes-mekanismoa definituko du.

h) Udalerriaren merkataritza-polaritateko ardatzetan dauden lokalak alokatzea eta birgaitzea, dagokion zonan merkataritza-fluxuak (haurtzaindegi-zerbitzua, erosketen kontsigna eta abar) erakartzen laguntzen duten zerbitzu osagarriak sustatzera bideratutako lokalak, alegia.

d) Acondicionamiento de áreas específicas para el desarrollo del comercio ambulante y ocasional ubicadas en entorno urbano.

A los efectos de esta Orden, se considerará como desarrollo de áreas de comercio ambulante y ocasional una serie de actuaciones que actualicen y dignifiquen la mencionada actividad comercial y la valoricen como forma de animación de las economías urbanas, tales como:

1) Adecuación de las superficies sobre las que se desarrollaran las actividades de esta tipología de venta.

2) Equipamiento e infraestructuras, no permanentes o efímeras, destinadas a dar servicio a esta actividad comercial: carpas, estructuras desmontables o similares.

3) Dotación de servicios de apoyo tales como: electricidad, agua, equipamiento electrónico, etc.

e) Señalética comercial.

f) Paramentos verticales o similares, no permanentes, cuyo objetivo sea la mejora del paisaje urbano y estético de los ejes comerciales y que estén vinculados a locales sin actividad.

g) Inversiones en ejes de baja densidad comercial que supongan un fomento de la actividad comercial en dicha área.

A los efectos de esta Orden, se considerarán ejes de baja densidad comercial aquellas calles comerciales, recogidas en el plan de Revitalización Comercial del municipio, en las que, en el momento de la solicitud, exista al menos un 25% de locales sin desarrollo de actividad económica. Esta condición será acreditada mediante el pertinente certificado municipal.

Las citadas inversiones comerciales se realizarán a través de alquiler y rehabilitación de locales para su puesta a disposición de la actividad comercial, cuando éstos estén ubicados en Cascos Históricos de los municipios recogidos en el anexo I de la presente Orden, o en áreas obsoletas o degradadas, recogidas en planes especiales de reconversión urbana.

En cualquier caso, dichos locales deberán ser puestos a disposición del sector comercial en condiciones ventajosas, respecto a las existentes en el mercado. En el caso de que la actividad comercial se desarrolle por un nuevo emprendedor, o una nueva emprendedora, (sin experiencia comercial) se definirá, por parte de la entidad solicitante, un mecanismo de tutela de 3 años sobre el proyecto.

h) Alquiler y rehabilitación de locales localizados en los ejes de polaridad comercial del municipio destinados a fomentar servicios complementarios que faciliten la captación de flujos comerciales en la zona, como por ejemplo: servicio de guardería, consigna de compras, etc.

i) Inbertsioak agindu honetan esanbidez bilduta egon ez arren, inguruneko merkataritzari balioa ematen laguntzen dietelako Sail honek modu positiboan kalifikatzen dituen hirigintza-eremuetan.

j) Txikizkako udal-merkatuak erabat aldatzera edo merkatu horiek azpiegitura komunak egungo premietara egokitzera bideratutako inbertsioak, hala nola:

1) Egiturak indartzea.

2) Instalazioa eta/edo fatxadak berritzea.

3) Estaldura hobetzea.

4) Sabaileihoak.

5) Iragazgaiztea.

6) Lehenengo egokitzapen estetikoa.

7) Irisgarritasuna.

8) Klimatizazioa.

9) Zamalanetarako nasak.

10) Hondakin-gordailuak eta -hustuketa.

11) Energia berriztagarrien hornidurako sistemak.

12) Hotz-ganberak.

13) Teknologia berriak eta komunikazio-sistemak.

14) Edoskitze-gelak, haurtzaindegiak eta antzekoak.

3.– Diru-laguntza jasoko duten inbertsioak deialdi-ebazpena indarrean jartzen den ekitaldiaren hasieratik aurrera gauzatu ahal izango dira, eta irmo esleitu beharko dira laguntza eskatzen den ekitaldiaren ondorengo ekitaldiko martxoaren 31 baino lehen.

Dena den, behar bezala justifikatutako arrazoiak tarteko, betiere erakunde onuradunari egozteko modukoak ez badira, diruz lagundutako jarduerak ez badira esleitu ezarritako epean, Merkataritzako zuzendariak gehienez ere hiru hilabetez luzatu ahal izango du jarduera horiek egiteko epea, baldin eta ezarritako epea amaitu baino lehen eskatzaileak behar bezala eskatzen badu luzatzea.

4.– BEZa, tasak, lanbide-ordainsariak, etekin industriala, gastu orokorrak eta kostu horretan sartuta ez dagoen beste kontzeptu oro ez dira diruz lagungarritzat hartuko.

Oro har, ez dira diruz lagungarritzat hartuko gerora udalerriari itzulketa ekonomikoa ekarriko dioten jardunak eta/edo inbertsioak, aurreko atalean adierazitako merkataritza-lokalak erosteko eta birgaitzeko egindako inbertsioak izan ezik.

***7. artikulua.***– Laguntzen zenbatekoa.

1.– Emandako laguntzen zenbatekoa jardueren egiazko kostuaren % 80 izango da gehienez ere.

i) Inversiones en las áreas urbanísticas que, aún no estando recogidas expresamente en esta Orden, se califiquen positivamente por este Departamento por su contribución a la puesta en valor comercial del entorno.

j) Inversiones destinadas a la transformación integral de los mercados municipales minoristas, o a la adecuación de sus infraestructuras comunes a las necesidades actuales, tales como:

1) Refuerzo de estructuras.

2) Renovación de instalación y/o fachadas.

3) Mejora de cubierta.

4) Lucernarios.

5) Impermeabilización.

6) Primera adecuación estética.

7) Accesibilidad.

8) Climatización.

9) Muelles de carga y descarga.

10) Depósitos y evacuación de residuos.

11) Sistemas de aprovisionamiento de energías renovables.

12) Cámaras frigoríficas.

13) Nuevas tecnologías y sistemas de comunicación.

14) Salas de lactancia, guarderías y similares.

3.– Las inversiones objeto de subvención podrán llevarse a cabo desde el inicio del ejercicio correspondiente a la entrada en vigor de la resolución de convocatoria y deberán estar adjudicadas en firme con anterioridad al 31 de marzo del ejercicio siguiente al que se solicite la ayuda.

No obstante, cuando por causas debidamente justificadas, y no imputables a la entidad beneficiaria, se demore el plazo de adjudicación de las actividades subvencionadas, la Directora de Comercio podrá conceder una prórroga máxima de tres meses para la realización de la misma, siempre que dicha prórroga sea debidamente solicitada en fecha anterior al límite establecido.

4.– No se consideran subvencionables el IVA, las tasas, los honorarios profesionales, el beneficio industrial, los gastos generales ni cualquier otro concepto que no integre estrictamente dicho coste.

Con carácter general no serán subvencionables aquellas actuaciones y/o inversiones que posteriormente signifiquen un reintegro económico al municipio, a excepción de las inversiones de adquisición y rehabilitación de locales comerciales indicadas en el apartado anterior.

***Artículo 7.***– Cuantía de las ayudas.

1.– El importe de las ayudas concedidas podrá alcanzar hasta el 80% del coste efectivo.

Diruz lagunduko diren eskabideen gehieneko zenbatekoa ez bada deialdia egiten duen Ebazpenean aurreikusitako baldintza ekonomiko guztiak ordaintzeko adinakoa, gehiegizkoak hainbanatu egingo dira diruz laguntzeko moduko gisa onartu diren inbertsioen zenbatekoaren % 90eko gehieneko diru-laguntza lortu arte. Kasu honetan, ebazpen osagarri baten bidez honen berri emango da eta dirulaguntzaren guztirako zenbatekoa jakinaraziko da.

2.– Nolanahi ere, deialdi eta udalerri bakoitzeko emango den gehieneko diru-laguntza honela kalkulatuko da: udalerriaren biztanle kopuruaren araberako diru-laguntza, bider udalerri horren merkataritza-dentsitatearen koefizientea:

| Biztanleria-tarteak | Tartearen diru-laguntza |
|---|---|
| 1.000 - 1.999 | 30.000 euro |
| 2.000 - 4.999 | 40.000 euro |
| 5.000 - 9.999 | 60.000 euro |
| 10.000 - 14.999 | 90.000 euro |
| 15.000 - 29.999 | 145.000 euro |
| 30.000 - 59.999 | 175.000 euro |
| 60.000 - 99.999 | 230.000 euro |
| 100.000 - 249.999 | 460.000 euro |
| 250.000 baino gehiago | 690.000 euro |

Agindu honi dagokionez, honako datu hauek hartuko dira kontuan:

a) Urteko deialdi bakoitzaren ebazpena argitaratzen den egunean EUSTATek argitaratua duen azken merkataritza- eta biztanleria-errolda erabiliko da erreferentzia gisa.

b) Udalerri bateko merkataritza-dentsitatea: txikizkako saltoki kopurua x 1.000/biztanle kopurua.

c) Merkataritza-dentsitatearen koefizientea: udalerriaren merkataritza-dentsitatea/EAEko merkataritza-dentsitatea.

3.– Deialdia egiten duen ebazpen bakoitzean honako hauek jakinaraziko dira: udalerri bakoitzeko biztanleria-datuak, merkataritza-establezimenduak eta merkataritza-dentsitatea, baita EAEko merkataritza-dentsitatea ere.

***8. artikulua.***– Eskabideak eta dokumentazioa.

1.– Agindu honetan aurreikusitako laguntzak jasotzeko eskabideak Eusko Jaurlaritzaren Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren Merkataritza Zuzendaritzara bideratuko dira, eta urteko deialdi-ebazpenean zehazten diren tokietan aurkeztuko dira.

Eskabide bakarra egingo da aurreikusitako jardun guztietarako.

En el supuesto de que la cuantía máxima de las solicitudes a subvencionar no alcanzara la totalidad de los recursos económicos previstos en la resolución de convocatoria, se procederá a prorratear los excedentes hasta alcanzar una subvención máxima del 90% del importe de las inversiones admitidas como subvencionables. En este caso, se emitirá una resolución complementaria en la que se hará constar esta circunstancia y el importe total de la subvención.

2.– En cualquier caso, el límite máximo de subvención por convocatoria y municipio será el resultado de multiplicar la subvención según tramo de población, por el coeficiente de densidad comercial del municipio referenciado:

| Intervalo de población por habitantes | Subvención tramo |
|---|---|
| 1.000 - 1.999 | 30.000 euros |
| 2.000 - 4.999 | 40.000 euros |
| 5.000 - 9.999 | 60.000 euros |
| 10.000 - 14.999 | 90.000 euros |
| 15.000 - 29.999 | 145.000 euros |
| 30.000 - 59.999 | 175.000 euros |
| 60.000 - 99.999 | 230.000 euros |
| 100.000 - 249.999 | 460.000 euros |
| Más de 250.000 | 690.000 euros |

A efectos de esta Orden, se tendrán en cuenta los siguientes aspectos:

a) Se utilizará como referencia el último censo comercial y de población publicado por el Eustat a día de la publicación de la Resolución de cada convocatoria anual.

b) Densidad comercial de un municipio: Núm. de comercios minoristas x 1.000 / núm. de habitantes.

c) Coeficiente de densidad comercial: densidad comercial del municipio/densidad comercial de la CAPV.

3.– En cada Resolución de convocatoria se notificarán los datos de población, establecimientos comerciales y densidad comercial de cada municipio, así como la densidad comercial de la CAPV.

***Artículo 8.***– Solicitudes y documentación.

1.– Las solicitudes para acogerse a las ayudas previstas en la presente Orden se dirigirán a la Dirección de Comercio del Departamento de Industria, Innovación, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco, y se presentarán en los lugares especificados en la resolución de convocatoria anual.

La solicitud será única para el conjunto de actuaciones previstas realizar.

2.– Herritarren datuak eta hizkuntzari dagokionez, botere publikoek dituzten betebeharrak bilduta, erakunde eskatzaileak hizkuntza ofizialetako edozein aukeratu ahal izango du Administrazioarekin harremanetan jartzeko (Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 oinarrizko Legearen 5. eta 6. artikuluak).

3.– Erakunde eskatzaileek honako dokumentazio hau atxiki beharko diote eskabideari:

a) Behar bezala betetako eskabide-orria.

b) Eskumeneko organoak diru-laguntza emango duela egiaztatzen duen ziurtagiria. Aurkeztutako jardun bakoitzeko honako hau zehaztu beharko dute: jardunaren kostua eta eskatutako diru-laguntzaren zenbatekoa.

c) Eskatutako laguntzaren xede diren jardunak azaltzen dituen memoria.

Memoria horrek honako informazio hau jasoko du gutxienez:

1) Egin beharreko jardun bakoitzaren gauzatze-proiektua, honako hauek adierazita:

a) Lortu nahi diren helburuak.

b) Gauzatuko diren ekintzak.

c) Egindakoaren eraginkortasuna neurtuko duten adierazleak.

2) Aurrekontu xehatuak, baita partiden arabera ere, hala badagokio.

3) Gauzatzeko egutegia.

4) Jardunak egingo diren zonei buruzko dokumentazio grafikoa, baita lehengo egoeraren argazkiak ere.

d) 5. artikuluan adierazitako esparru-akordioaren kopia, baita ondoren egiten den edozein aldaketarena ere.

e) Eskatutako laguntzaren xede diren jardunetarako eta/edo inbertsioetarako erakundeak ez duela bestelako laguntzarik jaso egiaztatzen duen ziurtagiria, dagokion organo eskudunak emana.

f) Zinpeko edo erantzukizunezko aitorpena, bertan adierazita erakunde eskatzailea administrazio-arloan diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzearekin zigortuta ez dagoela eta hartarako ezgaitzen duen legezko debekuaren eraginpean ez dagoela, sexu-diskriminazioaren ondoriozko debekuak barne, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera.

2.– Recogiendo los derechos de la ciudadanía y deberes de los poderes públicos en materia lingüística, la entidad solicitante puede elegir cualquiera de las lenguas oficiales para dirigirse a la Administración (artículo 5 y 6 de la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, básica de normalización del uso del Euskera).

3.– Las entidades solicitantes deberán adjuntar la documentación siguiente:

a) Impreso de solicitud debidamente cumplimentado.

b) Certificación del acuerdo del órgano competente acogiéndose a la ayuda, detallando para cada una de las actuaciones presentadas, coste de la misma e importe de la subvención solicitada.

c) Memoria explicativa de las actuaciones para las que se solicita la ayuda.

Esta memoria deberá recoger, al menos, la siguiente información:

1) Proyecto de ejecución de cada una de las actuaciones a desarrollar, indicando:

a) Objetivos que se pretenden alcanzar.

b) Acciones a ejecutar.

c) Indicadores que medirán la eficacia de lo realizado.

2) Presupuestos detallados, hasta por partidas, en su caso.

3) Calendario de ejecución.

4) Documentación gráfica, incluyendo fotografías de la situación previa, de las zonas objeto de las actuaciones.

d) Copia del acuerdo-marco a que se refiere el artículo 5, así como copia de cualquier modificación posterior que pudiera producirse.

e) Certificación del órgano competente acreditativo de que la entidad no es beneficiaria de ninguna otra ayuda otorgada para las actuaciones y/o inversiones para las que se solicita la ayuda.

f) Declaración jurada o responsable de la entidad solicitante de no hallarse sancionada administrativamente con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas, ni estar incursa en prohibición legal alguna que la inhabilite para ello, con inclusión de las que se hayan producido por incurrir en discriminación por razón de sexo, en virtud de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

III. KAPITULUA
MERKATARIEN ELKARTEENTZAKO ETA ELKARTE MISTOENTZAKO LAGUNTZAK

***9. artikulua.***– Diruz lagun daitezkeen proiektuak.

1.– Diruz lagungarritzat hartuko dira udalerriko merkataritza-garapeneko planteamenduekin bat datozen proiektuak, hain zuzen ere honako helburu hauek dituztenak:

a) Udalerri horretan merkataritza dinamizatu eta sustatzera bideratutako ekintzak antolatzea eta gauzatzea, betiere merkataritza-fluxuak lortzea xede duten zonako estrategiak sortzeko asmoz.

b) Merkataritza-zerbitzuaren osagarri izango diren zerbitzuak antolatzea eta sustatzea, zona horretan merkataritza-fluxuak lortzeko lagungarri izan daitezkeenak, alegia.

c) Sektorerako interes komunekoak izango diren lankidetza-zerbitzuak garatzea eta kontratatzea (eskala-ekonomiak sortuko dituzten proiektuak, negoziazio onuragarria eta abar).

2.– Diruz lagun daitezkeen jarduerak deialdi-ebazpen bakoitzari dagokion ekitaldiaren hasieratik deialdia egiten den urteko abenduaren 31ra arte egin ahal izango dira.

3.– Banaketa-jarduerarekin lotutako estatutu-xedea duten eta Euskal Autonomia Erkidegoko eta agindu honetako I., II. eta III. eranskinetan bilduta ez dauden udalerrietako merkatarien elkarteek eta elkarte mistoek laguntza eskatzeko eskabidea egin ahal izango dute (udalerri bakoitzeko bat) artikulu honetan biltzen diren jarduerak garatzeko; horretarako, aurreikusitako gainerako baldintzak bete beharko dituzte, udalaren eta elkarteen arteko esparru-akordioa, agindu honetako 5. artikuluan azaltzen dena, izan ezik.

